ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 10a, ostirala • 54 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2019ko martxoaren 12ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez deia egiten baita 2018/2019 ikasturte akademikoan musika ikasketak egiteko laguntzetarako

BDNS (identifikatzailea): 450241

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/es/index.

Deialdiaren xedea

Finantzatzen laguntzea Donemiliagako udalerrian erroldaturiko adingabeek udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2018/2019 ikasturtean antolaturiko musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak, salbu eta udalak hitzartutako musika eskoletako izen emateen gastuak.

Onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean adingabeak direnak, baldin eta, diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon badira, eta Donemiliagako Udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek egindako musika jardueretara joaten badira, salbu eta hitzartuek egiten dituztenetara, 2018/2019 ikasturtean.

Oinarri arauak

Donemiliagako Udalbatzak 2019ko martxoaren 12ko bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahalko du:

* 180,00 euro, baldin eta onuradunak izena eman badu Donemiliagako Udalak antolaturiko musika ikasketetan.

* 180,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketetako bi maila edo gehiago egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

* 130,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketen arlo bat egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehienezko muga.

Onetsitako aurrekontuko partida nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, gehienezko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Aurrekontu zuzkidura

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 326.482.001. Partida horren zuzkidura, gehienez, 3.000 euro izango da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztuko dira, 2019ko irailaren 24a baino lehen.

Erdoña, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea
DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGINO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.10 05:26:54 Z